**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **04. Euskara, Kultura eta Kirola**<br>***04. Euskera, Cultura y Deporte*** | **04.** Ondare Historikoa<br>**04.** *Patrimonio Histórico* | **332.101** Foru Liburutegia<br>**332.101** *Biblioteca Foral* |

Foru Liburutegiak jarduera hauek gauzatu ditu 2022ko ekitaldian:

1. Liburutegiko jardueren ardatzak hauexek izan dira:

   - Funtsak zaintzea eta eskuratzea.

   - Liburutegiko ondare-balioak zabaltzea.

   - Ikertzaile eta erabiltzaileei kalitatezko zerbitzua eskaintzea.

2. Erosketa, dohaintza eta beste jatorri batzuen bidezko funtsak eskuratzeari dagokionez, Foru Liburutegiaren bilduma aberastu duten monografien 3.333 titulu berri gaineratu dira. Aldizkako argitalpenei dagokienez, alde batetik, 98 aldizkari-tituluren harpidetzari eutsi zaio eta alta eman da beste 14 aldizkaritan; bestetik, prentsari dagokionez, estatu-mailako 18 egunkari-tituluren eta atzerriko 2 egunkari-tituluren harpidetzari eutsi zaio.

3. Prozesu teknikoen ardatza katalogoen eguneratzea eta hobekuntza izan dira, bai eta Foru Liburutegiko bibliografia, hemerografia eta agiri-ondare joriaren zabalkundea. Ildo horretan, 10.092 erregistro erantsi dira katalogoan; horietatik 7.295 monografiei dagozkie (4.217 sartu berriak eta 3.078 atzera begirako katalogaziokoak); eta gainerako 2.797 erregistroak aldizkako argitalpenei dagozkie (671 sartu berriak eta 2.126 atzera begirako katalogaziokoak).

4. Funts bibliografiko eta hemerografikoen kontserbazioari dagokionez, ondoko jarduera hauek egin dira:

   - Prentsako 342 liburuki koadernatzea.

Durante el ejercicio 2022, la Biblioteca Foral ha llevado a cabo las siguientes actuaciones:

1. La actividad de la Biblioteca ha girado en torno a los siguientes ejes:

   - Conservación y adquisición de fondos.

   - Difusión de sus valores patrimoniales.

   - Servicio de calidad a los usuarios/investigadores.

2. Respecto a la adquisición de fondos por compra, donativo y otras procedencias, se han incorporado a la Biblioteca Foral 3.333 nuevos títulos de monografías que han enriquecido su colección. En cuanto a las publicaciones periódicas, por una parte, se ha mantenido la suscripción de 98 títulos de revistas y se ha dado de alta un total de 14; por otra, en relación a la prensa, se ha mantenido la suscripción de 18 títulos de periódicos nacionales y 2 de periódicos extranjeros.

3. Los procesos técnicos han estado centrados en la actualización y mejora de los catálogos y en la difusión del rico patrimonio bibliográfico, hemerográfico y documental que contiene la Biblioteca Foral. En este sentido se han incorporado al catálogo un total de 10.092 registros, de los cuales 7.295 corresponden a monografías (4.217 de nuevo ingreso y 3.078 de catalogación retrospectiva) y los 2.797 registros restantes corresponden a publicaciones periódicas (671 de nuevo ingreso y 2.126 de catalogación retrospectiva).

4. En lo que se refiere a la conservación del patrimonio bibliográfico y hemerográfico las actuaciones llevadas a cabo son las siguientes:

   - Encuadernación de un total de 342 volúmenes de prensa.

- 2022ko ekitaldian, Foru Liburutegiko funtsak digitalizatzeari dagokionez, 224 titulu digitalizatu dira, 9.008 irudi lortu dira erreserba-funtsetik, hemerotekatik , kartografiatik eta grabatuetatik.

Horrela, zaintza kontrolatzen da, eta gehien hondatutako ondarea apurka-apurka zaharberritzen da.

5. Ondare balioei zabalkundea emateko, zenbait jarduketa eraman dira aurrera; horien artetik, honakoak nabarmen daitezke:

a) Irakurketa erraza. 2022an, Foru Liburutegiak irakurtzeko zailtasunak dituen kolektiboan irakurketa dinamizatzeko ekimenak garatu ditu; zenbatespenen arabera, biztanleen % 30ek, gutxienez, irakurtzeko zailtasunak ditu. Horretarako, hainbat ezaugarridun kidez osaturiko 7 irakurketa-talde sortu dira eta talde bakoitzak bost edo sei saio egin ditu:

➢ 2022ko lehen seihilekoko irakurketa-taldeak:

- Zentzumen-zailtasunak dituzten adinekoen taldea.
- Euskara ikasten ari diren helduen bi talde.
- Lantegi Batuak-eko langileentzako taldea.

➢ 2022ko bigarren seihilekoko irakurketa-taldeak:

- Euskara ikasten ari diren helduen taldea.
- Zentzumen-zailtasunak dituzten adinekoen taldea.

- Respecto a la digitalización de los fondos de la Biblioteca Foral, en 2022 se han digitalizado 224 títulos y obtenido 9.008 imágenes de obras pertenecientes al fondo de reserva, hemeroteca, cartografía y grabados.

De esta forma se controla la preservación y se acomete la restauración progresiva del patrimonio más deteriorado.

5. En el ámbito de la difusión de los valores patrimoniales, se han llevado a cabo varias actuaciones, entre las que destacamos las siguientes.

a) Lectura Fácil. En 2022 la Biblioteca Foral desarrolla iniciativas de dinamización de la lectura entre este colectivo de personas con dificultades lectoras, que se calcula supone al menos el 30 % de la población, con 7 clubes de lectura, de cinco o seis sesiones cada uno, para integrantes de diversos perfiles.

➢ Clubes del primer semestre de 2022:

- Grupo de personas mayores con dificultades sensoriales.
- Dos grupos de personas adultas en aprendizaje de euskera.
- Grupo para personas trabajadoras de Lantegi Batuak

➢ Clubes del segundo semestre de 2022:

- Grupo de personas adultas en aprendizaje de euskera.
- Grupo de personas mayores con dificultades sensoriales.

- Etorkinen taldea.

b) Orobat, Foru Liburutegiak irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeentzat honako hauek jarri ditu erreserbatzeko moduan, erakunde horiek irakurketa errazeko euren taldeak sortu eta dinamizatu ditzaten: tailer-gela, irakurtzeko material espezifikoa (bildumako aleak) eta tresna osagarriak (telelupa).

c) 2022an, bisita gidatuak egin dira eraikina eta Foru Liburutegian eskaintzen diren liburutegi-zerbitzuak ezagutarazteko. Zehazki, 43 bisita gidatu egin dira, 39 gaztelaniaz, 3 euskeraz eta 1 ingelesez, eta guztira 325 lagunek hartu dute parte; horietatik 222 emakumeak izan dira, eta 103 gizonak.

d) Bukatzeko, esan behar dugu Foru Liburutegia Open House Bilbao 2022 ekimenean bisitatutako egoitzetako bat izan zela.

6. Erabiltzaileei dagokienez, aipatu behar da 2022an zehar, guztira, 144.781 pertsona joan direla Foru Liburutegiko instalazioetara.

   Foru Liburutegiko Txartelari dagokionez (2014ko maiatzean jarri zen martxan), 2022ko urtearen amaierara arte, 15.452 txartel eman dira, horietariko 15.213 ohiko irakurleei (5.927 gizonak eta 9.286 emakumeak) eta 239 ikertzaileei (150 gizonak eta 89 emakumeak)

   Guztira, 2.340 lagunek erabili dute Liburutegiko Internet Gelan eskainitako zerbitzua; horietatik 1.610 gizonak izan dira, eta 730 emakumeak.

   Eskaera-inprimakiaren bitartez funtsak kontsultatu dituzten erabiltzaileak 2.233 izan dira, horietatik 1.944 gizonak eta 289 emakumeak.

- Grupo de personas inmigrantes.

b) Así mismo, la Biblioteca Foral ha puesto a disposición de asociaciones y organizaciones sin ánimo de lucro la reserva de salas de talleres, así como material de lectura específico (ejemplares de la colección) y equipamiento auxiliar (telelupa) para la realización de clubes de lectura fácil, dinamizados por ellas mismas.

c) Durante 2022 se han realizado visitas guiadas para dar a conocer el edificio y los servicios bibliotecarios que se ofertan en la Biblioteca Foral. Concretamente un total de 43 visitas guiadas, 39 en castellano, 3 en euskera y 1 en inglés, para un total de 325 personas, de las cuales 222 han sido mujeres y 103 hombres.

d) Por último la Biblioteca Foral ha sido una de las sedes que se visitaron durante el Festival Open House Bilbao 2022.

6. En relación a las personas usuarias, hay que señalar que durante 2022 se ha registrado un total de 144.781 personas que han accedido a las instalaciones de la Biblioteca Foral.

   En cuanto a la txartela o carné de la Biblioteca Foral, desde que se puso en marcha en mayo de 2014 hasta finales de 2022 se ha expedido un total de 15.452 carnés, de los cuales 15.213 son de lectores habituales (5.927 hombres y 9.286 mujeres) y 239 de investigadores (150 hombres y 89 mujeres)

   El total de personas usuarias del servicio ofrecido en la sala de internet de la Biblioteca ha ascendido a 2.340, de las cuales 1.610 han sido hombres y 730 mujeres.

   Las personas usuarias que han consultado fondos mediante la papeleta de solicitud han sido 2.233, de las cuales 1.944 han sido hombres y 289 mujeres.

Eskaera-inprimakiaren bidez kontsultatutako funtsak 4.903, izan dira, horietatik 1.467 monografiak eta 3.436 aldizkako argitalpenak. Kopuru horietatik at daude sarbide librea duten hainbat aretotan erabilitako funtsak.

7. Erabiltzaile birtualei gagozkiela, guztira 77.422 sarbide erregistratu dira Foru Liburutegiko webgunean eta, guztira, 446.286 bisita liburutegira eta hemeroteka digitaletara eta 132.485 Liburutegiko funtsak linean kontsultatzeko katalogo publikora (OPAC).

8. SIGB programa eta Gordailu digitala.

   Liburutegia mundu digitalera egokitzeko eta liburutegitik haratagoko zerbitzu bat eskaintzeko, zirkulazio-modulu bat garatu da Lantik foru-enpresarekin batera, Liburutegiak kudeatzeko *Sierra* programaren (SIGB) aplikazioaren barruan, beste ekintza batzuen artean.

   Alderdi teknologiko horren garapenari eta digitalizazio-prozesuari esker, epe ertainera funtsak eskurago egongo dira eta egoki zainduko dira.

9. Kultura-jarduerak

   Honako jarduketa hauek burutu dira:

   1. Literatura-sariak: literatura-sorkuntza bultzatu eta sustatzeko:

      - XIV. BIZKAIDATZ Saria (martxoaren 29ko 35/2022 FD), 16 urtetik gorakoentzat. Dirulaguntzaren deialdia ebatzi da, eta guztira 6.000 €-ko 6 sari eman dira. 28 lan aurkeztu dira, 13 emakumeek idatzitakoak eta 15 gizonek; gaztelaniazko modalitatean 20 kontakizun aurkeztu direla eta euskarazko modalitatean 8.

Los fondos consultados por ellos, mediante papeleta de petición, han ascendido a un total de 4.903, de los cuales 1.467 han sido monografías y 3.436 publicaciones periódicas. Quedan fuera de estas cifras los fondos que se hallan a libre acceso en las diferentes salas.

7. En lo que se refiere a las personas usuarias virtuales, se han registrado un total de 77.422 accesos a la página web de la Biblioteca Foral, así como un total de 446.286 visitas a la biblioteca y hemeroteca digitales y 132.485 al OPAC de la Biblioteca.

8. Programa SIGB y Repositorio Digital.

   Con el objetivo de acomodar la biblioteca al mundo digital y poder ofertar también un servicio más allá de sus muros, en coordinación con la empresa foral Lantik, se ha finalizado el desarrollo del módulo de circulación en el seno de la aplicación del programa de gestión de bibliotecas (SIGB) *Sierra*, entre otras acciones.

   El desarrollo de esta vertiente tecnológica, unido al proceso de digitalización, a medio plazo debe redundar en una mayor accesibilidad a los fondos y a su adecuada conservación.

9. Actividades culturales.

   Se han llevado a cabo las siguientes actuaciones:

   1. Premios Literarios: destinados a impulsar y fomentar la creación literaria:

      - XIV Premio BIZKAIDATZ (DF 35/2022, de 29 de marzo), para personas mayores de 16 años. Se ha resuelto la convocatoria de subvención con la concesión de 6 premios por un total de 6.000 €. Se han presentado 28 relatos, 13 mujeres y 15 hombres, siendo 20 relatos de la modalidad de castellano y 8 de la de euskera.

- Bizkaidatz Txikia VIII. Saria: 8 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat. 75 kontakizun aurkeztu dira (41 euskaraz eta 34 gaztelaniaz, neskenak 50 eta mutilenak 25).

- Bizkaidatz Txikia sariaren IX. deialdia argitaratu da.

2. Garatutako kultura-jardueren artean, ondokoak daude:

a) Erakusketak:

2022an, hiru erakusketa egin dira:

- *Lurraren lehen zirkumnabigazioaren V. mendeurrenaren atlas eta kodeak*, Areto Noblean, maiatzaren 5etik 30era; 342 lagun bertaratu ziren (149 emakume eta 193 gizon).

- *Mikroskopioak eta medikuntza*, Areto Noblean, urriaren 3tik azaroaren 5era; 738 lagun bertaratu ziren (397 emakume eta 341 gizon).

- *Ikusi eta ikasi: stop violencia vial*, lehenengo solairuko atarian, apirilaren 19tik maiatzaren 16ra; toki horretako erabiltzaileek oro har ikusi zuten.

b) Ikastaroak eta tailerrak

Gaztelaniazko irakurketa-taldeen (I eta II) jarduera dela eta, bi talde osatu dira lehen seihilekoan eta beste bi bigarrenean; euskarazko irakurketa-taldeen (I eta II) jarduera dela eta, talde bana eratu da seihileko bakoitzean. Guztira 120 pertsona bertaratu dira (98 emakume eta 22 gizon).

- VIII Premio Bizkaidatz Txikia: destinado a escolares entre 8 y 16 años. Se han presentado 75 relatos (41 en euskera y 34 en castellano, 25 niñas y 50 niños).

- Publicada la convocatorio del IX. Premio Bizkaidatz Txikia.

2. Entre las actividades culturales desarrolladas se encuentran:

a) Exposiciones:

En 2022 se han organizado 3 exposiciones:

- *Atlas y códices V. centenario de la circunnavegación de la Tierra*, en la Sala Noble, del 5 al 30 de mayo, y que fue visitada por 342 personas (149 mujeres y 193 hombres).

- *Microscopios y Medicina*, en la Sala Noble, del 3 de octubre al 5 de noviembre, y que fue visitada por 738 personas (397 mujeres y 341 hombres).

- *Ikusi eta ikasi: stop violencia vial*, en el vestíbulo de la primera planta, del 19 de abril al 16 de mayo, que fue contemplada por el conjunto de usuarios y usuarios de ese espacio.

b) Cursos y Talleres:

De la actividad Grupos de lectura en castellano I y II se han formado dos grupos el primer semestre y dos el segundo; y de Euskarazko Irakurle Taldeak I y II un grupo en cada semestre. La asistencia total ha sido de 120 personas (98 mujeres y 22 hombres).

Beste 8 tailer ere eman dira, euskaraz eta/edo gaztelaniaz, askotariko gai eta moldetakoak. Guztira, 108 pertsonak parte hartu dute (91 emakumek eta 17 gizonek).3 tailer euskaraz izan dira, eta 5 gaztelaniaz.

c) Mintzaldiak eta hitzaldiak

24 hitzaldi eman dira (11 euskaraz eta 13 gaztelaniaz), askotariko gaiak jorratuta: literatura beltza, izaki fantastikoak, medikuntza, emakumeak eta literatura eta abar. Guztira, 678 pertsona bertaratu dira hitzaldiotara (380 emakume eta 298 gizon).

d) Beste jarduera batzuk.

Efemerideak edo urteurren gogoangarriak oroitzea: Emakumearen Nazioarteko Eguna, Liburuaren Eguna edo Liburutegiaren Eguna. Egun horiek ospatzeko, hainbat jarduera antolatu dira; hala nola, hitzaldiak, ate irekien jardunaldiak eta bideoak.

Liburutegi honek garatzen dituen haur eta gazteentzako jarduerei dagokienez, ulertu behar da jarduera horiek dinamizatzea toki-administrazioei dagokiela hein handiagoan, euren izaera dela eta, kultura-zerbitzuak modu deszentralizatuagoan ematen baitituzte, auzoen esparruan, zehazki, eta askoz ere jarduera irisgarriagoak eta, ondorioz, askoz ere parte-hartzaileagoak eskain baititzakete. Horregatik ulertzen da Bizkaldatz Txikia literatura-sorkuntza goiztiarrarekin lotutako haur eta gazteentzako ekimen bakarra dela.

Se han impartido también otros 8 talleres, en euskera y/o en castellano, con temáticas diversas, estilos variados, siendo la asistencia total de 108 personas (91 mujeres y 17 hombres). 3 talleres han sido en euskera y 5 en castellano.

c) Charlas y conferencias.

Se han realizado 24 conferencias (11 en euskera y 13 en castellano) con temas diversos como: literatura negra, seres fantásticos, medicina, mujeres y literatura, etc. La asistencia total ha sido de 678 personas (380 mujeres y 298 hombres).

d) Otras actuaciones.

Conmemoración de efemérides: Día Internacional de la Mujer, Día del Libro o Día de la Biblioteca. Para celebrar esos días se han organizado diversas actividades, como conferencias, jornadas de puertas abiertas y vídeos.

En lo que se refiere a las actividades infantiles y juveniles desarrolladas por esta Biblioteca, se entiende que su dinamización compete más a las administraciones locales, dado el carácter de las mismas, al prestar sus servicios culturales de manera más descentralizada, concretamente a nivel de barrio, pudiendo ofrecer actividades mucho más accesibles y, por ende, mucho más participativas. Es por ello, que se entiende el premio literario Bizkaldatz Txikia como único referente infantil y juvenil relacionado con la creación literaria temprana.